

Arrasate

P R E S S

2001.eko
martxoak 2
531. zenb.

Aurrera begira

Martxoak 8: Emakumearen Nazioarteko Eguna



IRUDI
S P O R T

SPINNIN-A HELDU DA.
LEHENAK GARA.

Tituludun Irakasleak

MAKINAK GERTU DAUDE,
ZEU BAKARRIK FALTA ZARA.



CACIQUE
ORINOCO

ARROGOI

FESTA
BEROA
MARTXOAK
3
larunbata

CACIQUE

urteurrenak

Rockaren gaineko eztabaida

■ 54. zenb.

(1990-3-02)

Monterronen elkartu ziren Arrasateko rock taldeak eta udaleko ordezkariak. Elkarrekin egindako lehen batzarra izan zen, eta hainbat gai jorratu zituzten, baina ez zuten akordio zehatzik egin. Besteak beste, entseatze-



ko lokalak eskatu zituzten taldeek, baina udalak ez zien erantzun argirik eman.

Santa Agedako langileak haserre

■ 54. zenb.

(1990-3-02)

Santa Agedako ospitale psikiatrikoa Eusko Jaurlaritzako klinika pribatuaren hitzarmenari zegoen atxikituta.

Badirudi Santa Agedako langileak ez zeudela batere ados hitzarmen horrekin, eta euren ustez, Santa Agedak akordio propioa izan beharko luke.



Hori dela eta, ospitaleko langileek greba egitea erabaki zuten, aho batez.

Sixties: hamarkada bat desmitifikatzen

■ 54. zenb.

(1990-3-02)

Jose Mari Velez de Mendizabalek Sixties izeneko liburua idatzi zuen. Liburuan, urtetan idatzitako pasarteak bildu zituen, eta horrez gain, garai hartaz esaten zena larregikoa zela argitzen zuen. 60ko hamarkada ez eiz zen hain ona izan.

Pedruskok asmatu ez

■ 54. zenb.

(1990-3-02)

Oso denboraldi irregularra izan zuten Ramon Luengoren jokalariek, eta domeka hartan ere kanpoko taldeak eraman zituen puntuak. San Andreskoek Aranbizkarra taldearen bisita izan zuten, eta 0-2 izan zen emaitza.

besteek esana



Hasiera batean guretzat aldaketarako proiektu bat da. Gure taldearen asmoa da Realaren harrobia indartzea eta sustatzea. Lehengo taldean ahalik eta jokalaririk gehienak bertakoak izan daitezela da gure helburua. Bestalde, bazkide eta zaleak klubera hurbildu nahi ditugu, bai fisikoki eta baita emozionalki ere. Orokorrean kluba modernizatu nahi dugu”

Jose Luis Astiazaran

ARRASATE IRRATIA

(2001-02-03)



ARKO
ARRASATE
KOMUNIKABIDEAK

ARRASATE PRESS

Argitaratzailea: ARKO (Arrasate Komunikabideak) Oñalora kalea, 31 20.500 ARRASATE (Gipuzkoa)
Tel.: 943 71 25 11. Faxa: 943 71 23 89
E-mail: arrasatepress@euskalnet.net
Arrasate Irratia: 943 71 17 31

Laguntzaileak: Arrasateko Udala. **Kazetariak:** Ubane Madera, Leire Kortabarria eta Xabier Urzelai. **Publizitateak:** Nerea Zallo, Arantza Lagunilla eta Natalia Martinez. (Tel.: 943 71 23 91/ 943 71 23 92). **Zuzentzailea:** Sergio Azkarate. **Administrazioa:** Agurtzane Gainzarain, Ane Berezibar (Tel.: 943 71 23 90) **Disenua:** Maithe Fiementerria eta Alex Azkarate. **Asteburuetako berriemakilerak:** Lorea Aguiriano. **Banaketa arduraduna:** Naiara Oñozola-AED. (Tel.: 943 71 12 28). © ARRASATE PRESS. **Tirada:** 6.500. **Legelagordailua:** 1124/88. **ISSN:** 0214-4654. Frankeo konzertatua. **Inprimategia:** Gertu Koop. E. (Zubillaga, Oñati).

ARRASATE PRESSek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

ARRASATE PRESS paper birziklatuan egiten da.

Azala: Ubane Madera. Azaleko emakumea: Maria Oñati Astola, arrasatearra da.



Arrasateko Udalerriaren laguntza



Gipuzkoako Foru Aldundia




Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren laguntza

- Lehen begiratu 3
- Asteko hitzorduak 4
- Inkesta 5
- Astearren erreposoa 6
- Orain eta hemen 7/9
- Aurrez aurre Idoia Agirre 10/11

- Txutxumutxuak 12
- Aratusteak 13/15

- Kultura 17/19
- Zaldibar areto futbolak 20/21
- Kirolak jokoan 22/23
- Uhinetan barrena 25
- Foto zaharra 26

aurkibidea



ZERBITZUAK

Eritetxeak

Arrasateko Eskualde-Ospit. 943 03 53 00
 Iguatorioria 943 71 26 91
 Santa Agedako Ospitalea
 (gizonak) 943 79 39 00
 (emakumeak) 943 79 44 11
 Buru osasunerako zentroa 943 79 90 11

Larrialdiak

SOS Deiak 112
 Gurutze Gorria 943 76 55 76
 DYA 943 78 71 57

Anbulatorioak

Guardiako medikua 943 46 11 11
 Astelehenetik
 Barikura 17:00etatik 08:30era
 Zapatuetan 14:00etatik 08:30era
 asteburu eta
 jai egunetan egun osoa
 Arrasate
 Astelehenetik
 Barikura 08:00etatik 17:00etara
 Zapatuetan 09:00etatik 17:00etara
 • Txanda hartzeko: medikuntza
 orokorra eta pediatria 943 03 52 50
 • Espezialitateak 943 03 53 11
 • Ikuskatzaileak 943 03 52 52
 • Kanpoko kontsultak: 943 03 53 11
 Aretxabaleta 943 79 74 58
 Aramaio 945 44 53 40

Anbulantziak

Gipuzkoako ambulanziazki 943 45 87 44

Ertzaintza

Arrasate 943 79 71 99

Suhiltzaileak

Udal taldea 943 79 09 00
 Udal taldeko suhiltzaile burua 943 79 20 72
 Zubillagako Eskualde-Parkea 088

Matxurak

Urak (udal zerbitzua) 943 79 09 00
 Argindarra (Iberduero) 943 12 01 62
 Gasa 900 40 05 23
 943 79 78 44
 943 79 76 78

Garraioak

Taxiak 943 79 12 22
 PESA 902 10 12 10

Hirugarren adinekoentzako zentroak

Iturbide Egoitza 943 79 72 11
 Abaroa jubilatuen egoitza 943 79 81 57

Monterron liburutegia

Monterron 943 77 01 05

MEZAK

San Joan parrokia

Zapatua	Domeka
19:00 (elebiduna)	09:00 (gaztelaniaz)
	11:00 meza nagusia
	(euskaraz)
	12:30 (elebiduna)

San Frantzisko eliza

Zapatua	Domeka
19:00 (elebiduna)	10:00 (gaztelaniaz)
	11:00 meza nagusia
	(euskaraz)
Domeka	12:30
09:00 (euskaraz)	(gaztelaniaz)
	19:00 (gaztelaniaz)

Uribarri parrokia

Zapatua	Domeka
19:00 (elebiduna)	11:30 (euskaraz)
	12:30 (gaztelaniaz)

San Andres eliza

Zapatua	Domeka
19:00 (elebiduna)	10:00 (elebiduna)
	11:00 (euskaraz)
	12:00 (gaztelaniaz)
	13:00 (gaztelaniaz)

Santa Teresa eliza

Zapatua	Domeka
19:00 (elebiduna)	10:30 (gaztelaniaz)
	11:30 San Isidron
	(euskaraz)
	12:30 (gaztelaniaz)

Santamañako eliza

Jaleguz bezpera	Domeka
eta zapatua	12:00
19:00 (gaztelaniaz)	(gaztelaniaz)

ibilgailuen zerga

Dagoeneko, onartu da ibilgailuen gaineko aurtengo zergaren errolda, eta jendaurrean izango da datorren aste osoan. Martxoaren

1etik maiatzaren 2ra arte ordaindu daiteke, udaletxean edo edozein banketxetan.

ur eta zabor zergak

lazko laugarren hiruhilabeteko ur eta zabor zergen ordainagiriak aurkezteko epea zaba-

lik dago. Apirilaren 11ra bitartean izango da borondatezko epea.

txokolate jana

Martxoaren 8an, Emakumearen Egunaren ospakizunen barruan, umeendako eta aita-amendako txokolate jana antolatu du uda-

lak. Gazte txokoetan eta ludoteketan, 17:00etan.

kintoen ospakizunak

Martxoaren 3an, kinto batzar bi izango dira: 45ekoak eta 46koak, hain zuzen. 45ekoak Daniel "Ante" Uribarreni deitu, eta

46kook, Agustin Akizuri edo Santos Zeziagari.

begirale bila

Txatxilipurdik aurtengo udalekuak prestatzeari ekin dio. Begirale izan gura baduzu, martxoaren 30era arte eman dezakezu ize-

na, Pablo Uranga kaleko 6. zenbakian, edo 943 79 54 46 telefonoan.

manifestazioa

Martxoaren 8an, Berdintasuna Behingoz! lelopean, kale agerraldia egingo da. Portaloitik

irtengo da, 19:00etan.

hezkidetzeta mintzagai

Hezkidetzeta pausoz pauso izeneko tertulia izango da otsailaren 8an, Musakolako Herri

Eskolan, 15:00etan. Aita-amak daude gonbidatuta.

GAU ETA EGUNEKO FARMAZIAK

Egubakoitza, 2

- Ruiz, Magdalena

Zapatua, 3

- Morales, Araba

Domeka, 4

- Azkoaga, Ferrerias

Astelehena, 5

- Azkoaga, Iturriotz

Martitzena, 6

- Corcuera, Aranbarri

Eguaztena, 7

- Irizar, Erguin

Eguena, 8

- Amezua, Santa Marina

TOLDOS LECE

Eguzkiari aurre egiten diogu inork baino hobeto

Kataide Industrialdea, 14
 Musakola • ARRASATE
 Tel.: 943 79 23 83
 Faxa: 943 77 04 45

Zer irizten diozu erdigunea oinezkoendako izateari?


Horren ondorioz, autoek mugatua izango dituzte erdigunera sartzeko orduak: lanegunetan, 08:00-13:00.



Mertxe Trojaola
(60 urte)

Beatriz oinetako denda

Ez dugu gura autoak gora eta behera ibiltzea, baina, era berean, epe luzera begira, kezkatuta gaude. Guztiz ixtea ez zaigu ondo iruditzen.



Ander Landaluze
(47 urte)

Landaluze harategia

Kamioiek eta antzekoek arazo asko izaten dituzte zamalanak egiteko, eta jendearendako ere nahiko arazo izaten dira.



Pili Gutierrez
(50 urte)

Muruamendiaraz gozotegia

Ez gaude ados; ez, behintzat, guztiz ixtearekin. Zamalanak egiteko arazo ugari ekarriko du horrek.



Tamara Miguel
(20 urte)

Gili Gili jantzi denda

Ez nago akorde. Dendaria naiz eta zamalanak egin behar izaten ditut, pakete handiekin atzera eta aurrera ibili...



Iñaki Mendizabal
(40 urte)

Ikatz argazki denda

Ondo, hemen bizi den jendeari arazorik sortzen ez badio, behinik behin. Bestela, dendarientako ona da, hemen ibiltzen den auto piloa ez da ona.



Blanka Etxebarria
(52 urte)

Lua goxoki denda

Automobilekin datozenek ikusi beharko dute hori, baina nire ustez, behintzat, hobeto dago horrela.



Jose Ramon Otamendi
(39 urte)

Otamendi harategia

Ondo dago; jendearendako, askoz hobeto. Hala ere, arazoak egongo dira zamalanekin, izan ere, banatzaile batzuk goizez etortzen dira.



Marimar Martin
(47 urte)

ZR jantzi denda

Oinezkoendako izateari ondo deritzot, baina ez, ordea, ordutegiak murrizteari. Banatzaile bat 18:00etan etortzen bada, ezin ditu zamalanak egin.

Sagardotegia



ITURROIETA

Txotx egin!

Astelehenetik asteazkenera enkarguz

Ostegunetik igandera zabalik

Arraga auzoa
Tel.: 945 44 53 85
ARAMAIO



EGUZKIGRAF

inprimategia



Industrialdea E-0-4
Telefonoa: 791844
Faxa: 792944
ARETXABAETA

USTEAK USTE

Imajina ezazu (II)

PRESS erraldoia, erretratu handiekin, albisteak lehen beste, landuagoak, guztia GOIENKARIAren barruan. Zer bait galtzen da, bai, aldaketa guztietan bezala. Baina gehiago da irabazten dena.

Imajina ezazu.

Eskualdeko herri guztiek izango dute herriko astekaria, orain arte Arrasatek eta Bergarak bakarrik zuten. Hauek GOIENKARIA irabazi dute. Guztira, orri kopuru bikoitza argitaratuko da eskualdean. Orriak, gainera, egunkari tamainakoak. Edukiak, beraz, hirukoitza egingo dira. Ez da salto makala.

Eta hori dena inprimategiko gastua handitu gabe, errotatibari esker. Onar daiteke egunkari papera ez izatea bestea bezain dotorea, prezio berean hiru bider gehiago argitaratzeko aukera ematen badu. Guk hori uste dugu, behintzat.

Kantitatea bakarrik ez, ordea, kalitatea ere nahi dugu. Batu izanak lana hobeto egiteko aukera emango digu, profesionaltasun handiagoz. Maiatzetik aurrera hori ere igarri beharko litzateke. Eta igartzen ez baduzu, esan.

Mikel Irizar

astea bi hitzetan

■ **Masterra bukatu**
Mondragon Unibertsitateak antolatutako Produkzio Zuzendaritzako masterra amaitu zen egubakoitzean. Masterrak hamaika hilabete iraundu, eta ardurak dituzten edo izango dituzten profesionalak heztearen helburu.

■ **Osoko bilkura**
Martutenen jazotako atentatuaren ildotik, PSE-EEko bozeramaileak, Paco Garcia, minutu bateko isilunea eta bilkura ez egitea eskatu zuen joan den egubakoitzeko osoko bilkuran.

Lehenengo eskaera onartu egin zuten, PP, PSE-EE, EA, EB eta EAJren aldeko botoekin. Bigarren proposamena, berriz, ez zuten onartu Xabier Zubizarreta alkateak. Horren aurrean,

PSE-EE, EAJ eta PPko zinegotziek alde egin zuten osoko bilkuren aretotik.

Martuteneko atentatuaren inguruan, EAk bost puntuko mozioa aurkeztu eta hiru onartu zituzten. Besteak beste, alderdi politikoei elkarrietzeta eta negoziazio prozesua abian jartzea eskatzen zieten EAko zinegotziek.

EHko zinegotziek beste idatzi bat aurkeztu zuten. Hildakoen senitartekoei elkartasuna adierazteaz gain, azpimarratu zuten eragile politikoei dagokiela euskal gatazka konpontzea, eta horretarako lan egingo dutela.

Bestalde, Juan Ramon Garaik, EHko zinegotziak eta Zutik-eko kideak, idatzi bat aurkeztu zuen bere iritzia pertsonalarekin. Oro har, atentatuaren errefusatzeari, ETA-ri su-etena aldarrikatzea eska-

tu zion, eta bide politikoak jorratzearen alde azaldu zen.

■ **Burujabetzaren alde**
Egubakoitzean, manifestazioa egin zen, EHk deituta, *Burujabetza da bakea, presoak herrira* kanpainaren barruan. Seber Altube plazatik irtenda, herriko kale nagusienak zeharkatu zituzten, herriko plazan elkartuz.

■ **Sutea Zigorrolan**
Zigorrolako Santa Teresa kaleko 16. zenbakian sutea izan zen egubakoitzean, 23:00ak inguruan.

Suhiltzaileek emandako datuen arabera, lehenengo pisuko tximinia batek su hartu zuen. Zorionez, ez zen ezer gertatu, baina sutea oso ikusgarria izan zen, eta jendearen ikusmina piztu zuen.

■ Atentatua gaitzesteko bilkura isilak

Martuteneko atentatua gaitzesteko, bilkura isilak egin ziren joan den egubakoitzean. Ibarretxe lehendakariak egindako deialdiarekin bat eginez, udaleko hainbat langile eta herritar elkartu ziren udaletxe aurrean.

EHk ere bilkura deituta bazuen ere, herriko ordezkariak ez zuten egin.

Bestalde, sindikatuek deituta, zenbait langile lan-



tokietako atarrietan elkartu ziren ordu laurdenez. Kataiden dagoen Elektra enpre-

san, berriz, lana eten eta langileak Martutenera joan ziren.

UGARAN
jatetxea

Garagartza auzoa
Tel.: 943 79 76 58
ARRASATE

M
MEMESA
Industria hornidurak

Tel. 943 71 24 25

Monte
taberna

Maalako arrabala, 11
Tel.: 943 79 20 56



Aratusteen biharamuna

Aratusteetako martitzen gauean ezezagun batzuek txiki-zioak egin zituzten herriko zenbait tokitan. Adibidez, udalak pare bat hilabete dela jarritako pibote hidraulikoak kontrolatzeko kaxa zeharo apurtu zuten. Baita haren ondoko seinale berria eta bi kale argi ere. Horrez gain, Iberdrolak Olarte kalean duen elektrizitate kutxa puskatu

zuten, eta kale bereko arrandegi bateko erakusleihora harri bat bota zuten. Arbola-petako Telefonikaren kabinak ere kolpeak jaso ditu, eta baita BBVAren kutxazain batek ere. Eta Biteri kalean, berriz, Once elkarteak duen egoitzaren kristala oso-osorik apurtu zuten.

Udalak ez daki oraindik galerak zenbatekoak diren.

Dama zuria geurean

Elurak egin digu urteroko bisita. Martitzenean, aurpegia ilundu eta eguraldia zeharo negutu zitzaigun. Elur malutak hasi ziren goizean, eta tarteka elurak egun eta gau osoan egin zuten. Mendiak estali zituen, eta baita zenbait mendatetan arazoak sortu ere, Elgetan eta Kur-

tzetan, esaterako. Diputazioak elurra kentzeko makinak ere atara zituen, zenbait errepide garbitzeko. Edoze-lan ere, ez zuen bestelako arazorik eragin, eta etorri bezain isilik alde egin zuten. Bitartean, batek baino gehiagok izango zuten gozatzeko aukera.



Zakarrontzi bereziak

Egunetik egunera igartzen da Alde Zaharra oinezkoendakogune bihurtzeko lanak aurrera doazela. Oraingo astean, zakarrontzi berriak jarri dituzte Alde Zaharrean: 19, guztira. Eta ohi baino handiagoak, gainera. Izan ere, bereziak dira. Elena Letek, lan horien arduradunak, adierazi digunez, 2000. urtean indarrean jarritako irisgarritasunaren legea betetzen dute. Lege horren arabera, herrietako kaleetan jarri beharreko elementuak igartzeko errazak izan behar dira. Hau da, itsu batek makilarekin jo eta non dauden igarri ahal izateko modukoak. Horrexegatik daude kalean, eta ez hormatik gertu; eta horrexegatik dira horren handiak, erraz ikusteko modu-



koak. Milioi bat pezeta pasatxo gastatu ditu udalak zakarrontziotan.

Zakarrontziez gain, Banco Guipuzcoanoaren atzealdean Gingko Biloba motako zuhaitza landatu dute. Eta hori ere oso zuhaitz berezia da. Munduan dagoen espezierik

zaharrena da; duela 250 milioi urte bazegoen horrelako zuhaitzik, Europaren erdi aldean. 30 bat urte behar ditu 10 metroko altura lortzeko. Hori bai, behin hazita, 30 metro gainditu ditzake, eta diametroan bi metro baino gehiago ere izan.

Loramendiko putzuari, agur

Datorren astean bukatuko dituzte Loramendi kalean egiten ari diren lanak; horrela, azkenaldian errepidean sortzen zen putzua desagertu egingo da.

Izan ere, ia bi aste darozte Loramendi kale hasierako tutuak konpontzen. Ura irteten zen, gorantz, eta horregatik sortzen zen putzua errepidean. Zerbitzu Saileko buru Jose Mari Urizar "Ametzuk" adierazitakoaren arabera, Arrasate Pasealekuko eta Euskadiko Kutxako urak batzeko hodiak pasatzen dira errepide horren azpitik, eta dirudienez, Loramendi kalean hodiak lotzeko dagoen kutxatila trabatuta zegoen eta ez zion urari pasatzen uzten. Horrela, ura errepidera irteten zen.

Isun asko jartzen dituzte, gaizki aparkatzearen

Herritarrok ez ditugu aparkalekuak larregi errepetatzen. Horixe ondorioztatzen da udaltzainek ipintzen duten isun kopurua ikusita: 500 bat, urtarrean; guztiak ere, gaizki aparkatzearen. Gehienak oinezkoen gunean jartzen dituzte, Olarten, Kontzeziñon, Zerkaostetan eta Maalan. Otaloran eta Jose Luis Iñarra kaleetan ere isun ugari ipintzen dituzte.

ESPALOI GAINEAN

Espaloi gainean aparkatzearen izaten ei dira isun gehienak. Ez aparkatzeko seinalea dagoen tokietan ere jende askok aparkatzen du; horixe adierazi digu Jose Luis Etxebarria udaltzainburuak: "Jendeak ez ditu seinaleak irakurtzen. Horrez gain, kontuan hartu behar da espaloi gainean eta Alde Zaharrean aparkatzen

duenak traba egiten diola jendeari. Espaloi oinezkoendako da, adin guztietako jendearendako; eta autoa espaloiaren badago, nagusiek, eta adibidez, umeein doazen gurasoek, arazoak izaten dituzte, askotan ezin dira errepidera irten eta pasatu ezinda ibiltzen dira".

LABAINDU ETA JAUSI

Baina, hori ez da arazo bakarra; autoek olio isurtzen dute tantaka-tantaka, eta "jendea labaindu eta jausi egiten da. Horren kontura, udala salaketak jasotzen ari da". Bestalde, askotan autoa erdialdera jais-teko bakarrik erabiltzen dute, "mandatu bat egitera datozela diote, eta ordubete luze egoten dira, autoa gaizki utzita".

Laubideko aparkalekua ere ez ei da behar beste erabiltzen, "bi pisu ditu, eta goikoa beteta dagoela ikustean, jendeak



Isun gehienak espaloi gainean aparkatutako autoei jarritakoak dira.

alde egiten du, beheko pisura joan beharrean."

Esan eta esanda ere, oso zaila da jendearen ohiturak aldatzea. "Edozein hiritara goazenean, jendeak lurpeko aparkalekuan sartzen du autoa, birritan pentsatu barik, nahiz eta gero, bide luzea oinez egin

behar. Hemen, berriz, ez da hori egiten nahiz eta udal aparkalekua erdialdetik minutu batera egon."

Hortaz, ikusten da aparkatzeko orduan ez ditugula besteen beharrak kontuan hartzen eta norberak berarena zaintzen duela.

Eroski eta Sonae

Portugalgo Sonae taldearekin hitzarmena sinatu du Eroskik. Bien bitartean, zenbait merkataritzagune erraldoi ireki gura dituzte, lehena, Madril. Leganes inguruan 40.000 m²ko merkataritza eremua zabalduko dute, eta Eroskik denda izango du hantxe. Aurrerantzean abian jarriko dituzten proiektuetan, Eroskik dendak izango ditu.

Ekinen batzarra

Atzo egin zuen Ekin Emakumeak taldeak urteroko batzarra. Kontuak zuritzea, iazko lanen balorazioa eta datorren urterako eginbeharrak zehaztu eta eztabaidatzea izan ziren landu zituzten gaietako batzuk.

Euskararen aldeko bilkura



Mondragoeko Euskal Herrian Euskaraz taldeak Diario Vasco egunkariaren aurrean protesta ekinga egin du oraingo astean. Hizkuntza zapalkuntza borrokatu kanpainaren barruan, "Diario Vascok bere isiltasunarekin euskararen aurka egi-

ten dituen erasoak" salatu gura izan dute. Horrekin batera, Espainiako Estatuak azkenaldian AEKren, Ikastolen eta D Ereduaren aurka egindako eraso bortitzak ere salatu dituzte EHE taldeko kideek. Gaur beste ageriraldi bat egingo ziren.

Saria Euskadiko Kutxari

Euskalitek, kalitaterako euskal fundazioak, zilarrezko Q saria eman dio Euskadiko Kutxari, etengabeko hobekuntzaren alde egindako apustu sendoagatik. Eta sari horren ondorioz, 400ekoen taldean sartu den Europako lehen finantza-entitate bihurtu da.

Zuhaitz eguna

Aurten, Garagartzan ospatuko da zuhaitz eguna. Datorren martitzenean izango da, eta 250 zuhaitz erosi ditu udalak. Urtero moduan, herriko ikas-texetako neska-mutikoez, erretiratuen laguntzarekin, landatuko dituzte zuhaitzak.

Goiena eta euskara elkarteak batera

Laster, urtebete egingo du Goiena proiektuak: 2000ko martxoaren 31n bailarako euskara elkarte guztiek eman zioten baiezkua komunikazio proiektu horri.

Datorren astelehenean, adostasun hori sendotuko duen hitzarmena sinatuko dute. Horren bidez, euskara elkarteek Goienaren esku utziko dute euren hedabideen eta lantaldeen kudeaketa.

Bergarako kultura etxe-ko mahai borobilean egingo da ekitaldia, hain justu, Goiena proiektua lehendabizikoz lantzen hasi zen leku berean.



Ikus-entzunezko eta idatzizko komunikabideak batzen ditu Goienak.

erakusten du Goienak sendotasuna hartu duela bateratze bide horretan, eta bailarako euskara elkarteek ikusi dutela Goiena gai dela orain arte eurek kudeatu dituzten produktuak kudeatzeko.

Berez, Goiena egitasmoan aurrez ikusitako urratsak betetzen ari gara poliki-poliki, eta datorren astelehenekoa, hain zuzen, oso urrats garrantzitsua da Goienaren bateratze prozesurako”.

Laubide automatizatzen

Laubideko aparkalekuan sarre-irteerak zaintzeko hesi automatikoa ipintzea onetsi du gobernu batzordeak. Ia 13 milioi pezetako aurrekontua onartu du hesi hori ipini eta dagokion ondorengo mantentze lanak egiteko. Horrekin batera, lan horiek egiteko lehia-keta deitzea ere onartu du.

Bestalde, aparkalekuko arrakalak direla eta, azterketa egitea eskatu zuen udalak. Emaitez esaten dutenez, arrakalak daude eta ura sartzen da, baina, ez dago bestelako arriskurik. Edozelan ere, azterketa egin duen enpresak konpontze lanak egitea komeni dela adierazi du. Hortaz, udalak zer egin erabaki beharko du.

Pertsona nagusien oporraldia prest

Udaleko Gizarte Zerbitzuetako Sailak aditzera eman duenez, prest daude IMERSOKO 2001/2002 urteko bidaiari programetarako eska-riak.

Interesatuak hara joan behar dira, 15:00etatik 17:00etara. Eskariak aurkezteko azken eguna martxoaren 31 izango da.

NATURA TURISMOA

Ohiko eskaintzaz gain, dato- rren urtean, gainera, nagusiek beste aukera bat izango

dute oporretara joateko: natu- ra turismoa, hain zuzen ere. Izenak dioen moduan, natu- rarekin lotutako eta naturare- kin harreman estua eskatzen duten bidaiari antolatuko ditu IMERSOK.

Osterako eskaintzen arte- an, urtero moduan, penintsu- la barrurako eta irletarako bidaiari antolatu dituzte (Andaluzia, Murtzia, Valen- tzia, Balear eta Kanariar Uhar- teak...). Baita ibilbide kultu- ralak ere (Gipuzkoako erreti- ratuendako Gaztela-Mantxa-



ko ibilbidea antolatu dute).

Bidaiari bi alditan egingo dira: batetik, 2001eko urritik

2002ko apirilera arte; eta bes- tetik, 2002ko otsailetik maia- tzera arte.


Plus Ultra taberna

Maalako Errabala, 17
ARRASATE
Tel. 943 79 20 57

Sili Sili

Martxa eta estilo handiko arropa

Iturriotz, 9 • ARRASATE
Tel.: 943 79 81 82



TXIRRITA Taberna

Garagardo ona
Giro hobea

Gesalibar auzoa
Tel.: 943 79 10 35

IDOIA AGIRRE (ARRASATEKO EMAKUMEA XX. MENDEAN' LAR

«Emakumea historiak jaso

Irribarretsu agertu da Idoia elkarrizketara, eta egun onak eman dizkit. Lasterka etorri da autobus geltokitik. Bidea ongi ikasita dauka, egiten dabilen azterketa Arrasaten kokatzen bada ere, Gasteizen bizi delako. Ordu ugari igaro ditu Arrasateko IMIko egoitzan, eta lana neket-sua bada ere, gustura dabilela dio, asko ikasten dabil eta.



— Zerk bultzatu zaitu lan hori egitera?

— Arrasateko Emakume Kontseiluak erabaki zuen Arrasateko emakumea XX. mendean ikerketa egitea, eta niri gai interesgarria iruditu zitzaidan ez, deialdira aurkeztu nintzen.

— Zein da lanaren helburua?

— Hasteko, historiak dituen hutsuneak betetzea. Historiak bere esparrua zabaldu du eta protagonista berriak azaldu dira; emakumea da orain arte historiak jaso ez duen protagonista bat, eta lan horrek hutsune txiki bat, behintzat, betetzen du. Horrez gain, beste ikerketa batzuetako atea ere izan daiteke.

— Eta aurrekariak jakitea berriro gerta ez daitezen?

— (barreak) Liburuak hori lortuko balu, *chapeau*, mundiala izango litzateke. Hala ere, aurreko egoeren zergatiak jakitea oso garrantzitsua da. Sarritan esan izan da emakumeen eta gizonen arteko ezberdintasunak biologikoak direla soilik, eta orduan, ez gara konturatzen kulturak markatzen dituela, arlo askotan, ezberdintasun horiek; hau da, kulturalki ezberdintasun batzuk inposatu egin direla.

— Lana egiteko atzera begiratu behar izan duzu. Iku-sitakoa ikusita, datorrenak itxura hobea dauka?

— Mendearen errebasoa

eginez gero, gauzak hobetu egin direla esan dezakegu. Emakumeak ikasteko eskubide eta aukera berberak ditu, aisialdian ere emakumea aintzat hartzen da, eta jeneralean, gauzak hobetu egin dira. Horrek ez du esan gura guztia egin dagoenik, ezta gutxiago ere. Besteak beste, oraindik ekonomiak emakume gaztekin jokatu egiten du. Gizon baino emakume gehiago dago lan barik, eta lan bera eginda ere, kasu askotan, emakumeak gutxiago irabazten du, beraz oraindik badago zer hobetu.

— Azterketa egiterakoan, zein izan da zailtasunik handiena?

— Lana egiterakoan, arazo asko izan ditut. Lehenik eta behin, lanaren nondik norakoak zehazteko orduan. Mende batek luzerako ematen du, eta aukeratu egin behar da. Horrez gain, beste arazo handi bat informazioa lortzea da. Artxibora jotzen duzunean, informazio guztia ez da kutxa baten egoten, zu noiz iritsiko zaren zain. Informazioa sakabanatua egoten da, sarritan ez duzu informaziorik lortzen, lortutakoa behin eta berriro irakurri

«Emakume askok ikasteko aukerarik ez izana sumatzen dute faltan»

REN EGILEA)

«duen protagonista bat da»

behar duzu, eta horrek guztiak denbora luzea eskatzen du.

— Kontaizkiguzu lanaren nondik norakoak.

— Lanak hiru atal ditu: lehenengo atalak 36ko gerra arteko egoera jorratzen du; bigarren atalean, frankismoaren garaia aztertzen da; eta hirugarrenean, frankismoaren osteko egoera; azken baten, mende osoko ikuspegia da. Orain, lanarekin liburua egiteko asmoa dago.

— Arrasateko emakumeak elkarriketatzera,

zelan egin duzu aukeraketa?

— Ez ditut aukeratu; azken baten, emakumeekin egon gura nuen, euren bizipenak entzuteko. Hasieran, batzuek esaten zidaten ez zeukatela ezer kontatzeko, baina gero, hizketan hasi eta oso gauza interesgarriak entzun izan ditut, bizitza baten badago-eta zer kontatu.

— Emakume horiek zelan ikusten dute gaur egungo emakumearen egoera?

— Askok ikasteko aukerarik ez izana sumatzen dute faltan. Garai hartan, lanerako joera eta behar handia zego-

en, baina hori ez zaie soilik emakumeei gertatu, gizonezko asko behartuta joaten zen lanera. Baina, egia da euredako egoera asko aldatu dela, eta garai ezberdinak direla esan didate behin eta berriro.

— Liburu artean ibili eta gero, aurkitu duzu bitxikeriarik?

— 1807ko idatzi batzuk topatu ditut, gobernuak kale-ratutakoak, eta argi ikusten da sexuen arteko ezberdintasunak, neurri handi baten, kulturalak direla.

Honela diote 12. eta 13. artikuluek:

“Que ninguna mujer soltera o viuda que no ha llegado a la edad de cuarenta años viva sola. Sino que debe de arriarse a una familia honrada dando cuenta de ello al señor alcalde de aquella a la que está agregada”.

“Que los padres de familias yamos procuren no enviar a las fuentes a las jovenes bien sean hijas o criadas después del toque de las oraciones al anochecer, a lo menos sin luz para asegurarse de las ocasiones que pudieran ocurrir de andar solas en aquellas horas sin semejante precaución”.



ADI !!

GIDA 2001 ZURE ETXEKO POSTONTZIAN JASOKO DUZU

BEHAR DUZUN INFORMAZIO GUZTIA ESKURA :

- DENDA, LANTEGI, ELKARTE EDOTA ZERBITZUEN TELEFONO ETA HELBIDEAK.
- AUTOBUSEN ORDUTEGIA SEKULA BAINO ZABALAGOA.
- INGURUKO PARAJEEN ISTORIOAK.

GIDA JASOTZEKO EDO ZUZENKETAK EGITEKO, DEITU 943 71 23 91 TELEFONORA.

MODELOAK GOITBN

Gidoiak hala eskatuta, bikotekideena egin behar izan zuten Maialen Fernandez arrasatearrak eta Unai Valor eskoriatzarrak. Modeloak dira biak, eta GOITBn izan ziren joan den astean, iragarki bat grabatzen. Hainbeste hartualdi faltsuren ondoren, lagun egin ziren.



WEST SIDE STORY

Eta Manolo Escobar, eta La Oreja de Van Gogh, eta Rios de Gloria... eta beste 17 artista ezagun izan ziren zapatuan Al-Andaluseko egoitzan. Edo, behintzat, eurek bezala abesten eta dantza egiten zuten taldeak, elkarrekin antolatutako play-back jaialdian.



MAIDER OSA

GOITBko kazetari eta aurkezle izateaz gain, idazle ere badugu Maider Osa arrasatearra. Barakaldoko amodiozko gutunen lehiaketan sari bat irabazi berri du Maiderrek. Era horretako gutunak ederki idazten ditu. Bergarako lehiaketan ere sari bat irabazi zuen Maiderrek orain dela urte batzuk.



TORRADAK, ONAK; SARIAK, ERE BAI

Lan zaila izan zuten epaileek Zahar-Berriren II. torrada lehiaketako irabazleak aukeratzeko: begira, bestela, zein itxura ona zuten torradek. Azkenean, Josema Bergaretxek baserri-turismoan egonaldia irabazi zuen; Altuna Velasco familiak, presio-eltzeak; eta Ainhoa Zuluetak, Iturrieta sagardotegian afaria. Zorionak!



Gambrinus
garagardotegia

- Menua: bazkariak eta afariak
- Karta
- Errazioak

Otalora Lizentziatua, 40-42
Tel.: 943 79 53 32

AL

ILE APAINDEGIA

Alfonso X jakintsua, 1 behea
(Grupo San Juan)
Tel.: 943 79 79 65

**HIES
BERRI**

Tel.: 943 79 26 99

**M
ARENZA**

Altzariak
Diseinua
Apainketa

Bizkai, 1 • ARETXABALETA
Tel.: 943 79 08 07



Koloreen jaia izan zen.



Hau bai kultura nahasketa.



Zeinek esan du garbitzaile guztiak emakumezkoak direla?



Deabrutxoak eta aingerutxoak, guztiak jai giroan!!

Berdintasuna behingoz!

ERAKUSKETA,

Ximena Salterren eskulturak

Harresi aretoan (Iturriotz 35)

Egunak: martxoaren 1etik martxoaren 11bitartean

Ordutegia: lanegunetan 18:00-20:00,

eta asteburutan 12:00-14:00 eta 18:00-20:00.

Martxoak 3, zapatua

Goiz eta eguardian

Emakume artisauek eta baserritarren

AZOKA Seber Altube plazan

Martxoak 4, domeka

19:30 ANTZERKIA

"Cómeme el punto"

Legaleon-t, antzerki taldea

Non: Amaia Antzokia

Martxoak 7, eguaztena

19:00 HITZALDIA

"Zer egin sexuak beldurtzen gaituenean?"

Nork: Arantza Urkaregi, feminista.

Non: Monterronen

Martxoak 8, eguena

17:00

Gazte txokoetan eta ludoteketan guraso eta gaztetxoentzat ekitaldia

19:00

Ekitaldi Nagusia; MANIFESTAZIOA

Portaloian.

21:30 ZINEA

"Agnes Brawn"

Angelica Huston

Martxoak 9, eguakotxa

22:00 KONTZERTUA

Hijas del Sol (Guinea Bisau)

Faltrikeira (Galiza)

Txanbela (Euskal Herria)

Non: Musakolako kiroldegia

Sarrerak salgai Hiren eta AEK-Erdu euskaltegian.



ARRASATEKO UDALA

Emakume Salla




ARRASATEKO
EMAKUMEEN
KONTSEILUA

ARATUSTEAK



Futbitoan ere horrela egingo balute!!



Buruhauste gehiegi gauza onerako!!



Badaukazu lana lore horiek txukuntzen.



Esnetan baino uretan busti ziren hauek.



Plo, plo, plo!!



Angel Kriste ez zen ausartuko.



Hey baby!
buelatxo bat
ematera?

MARTXOKO EGITARAUA

Amaia Antzokian

ZINEMA

Ordua: 21.30ean

8 eguena

AGNES BROWN

Zuz.: Anjelica Houston

15 eguena

SEXO POR COMPASION

Zuz.: Laura Mañá

22 eguena



ONEGIN

Zuz.: Martha Fiennes

29 eguena

LAS VIRGENES SUICIDAS

Zuz.: Sofia Coppola



ANTZERKIA

MUSIKA

Ordua: 19.30ean

10 zapatua

Luis Aranburu Big Band

Ordua: 20.30ean (Arrasate Musikalek antolatuta)

24 zapatua

Deba Goieneko eskola arteko abesbatzen topaketa

Ordua: Goizeko 11.30ean / Arratsaldeko 17:00ean

25 domeka

Arrasate Musikaleko Musika

Bandaren kontzertua

Ordua: Goizeko 12.30ean

31 zapatua

Haragi Gordina

taldearen kontzertua

Ordua: 22.30ean (Korrika Kulturalak antolatuta)

4 domeka

COMEME

EL PUNTO

LEGALEON

Antzerki Taldea



APIRILEKO EGITARAUA

ANTZERKIA

Apirilak 1 domeka

"LOTSA GABE" VAIVEN Produzioak

Ordua: 19.30ean



ARRASATEKO UDALA

Kultura Salla ■

JIMENA SAITER (ESKULTOREA)

«Bakoitzaren baitan emakume basati bat dago»

jEmakumeon hainbat alderdiz zer edo zer esaten duten eskulturekin datorkigu Jimena Saiter txiletarra. Ez zaio gustatzen bere burua artistatzat hartzea, bitartekari edo zerbait adierazteko bide baizik, eta eskulturak eta poesiak erabiltzen ditu mezu horiek igortzeko. Harresi aretoan ikusi ahal izango ditugu 18 eskultura, martxoaren 11ra arte.

— Emakumeaz dira zure lan guztiak. Ez zara beldur beti gauza berdinak egiteko?

— Hainbeste gauza daude esateko, horietako asko ez dakizkigu... beti dut kontu berriren bat. Eskulturak egitea nork bere burua ezagutzeko prozesua da niretako, eta nire burua ezagutzen noan neurrian, esateko gauza berriak aurkitzen ditut.

— Txileko Patagonian hazi zinen. Zein da emakumearen eginbeharra hango gizartean?

— Matxismo handia dago. Emakumeon bizi energia ez da oraindik aintzat hartu. Dena dela, egoera historikoak direla eta, emakumeak sostengu lan handia egin du. Sostengua izan da, baina baita deuseztagarria ere, esperientzia irabazi, bai, baina ahitzen zoazelako aldi berean.

— Ilargia, lurra, hazia... daude lan horien oinarrian. Baita sexualitatea eta maitasuna ere.

— Sinbolo asko daude, bai. Ilargia beti egon da emakumearekin lotuta; hori kontzienteki erabili dut. Bestalde, lesbiana naizen aldetik, emakumeon sexualiterantz bideratua dut nire sentsualitatea, eta ez dut esango



erabateko ezagutza denik, baina bai bizipenak eman didan ezagutza, eta hori ere hemen agertzen da.

— Zer da, zuretako, emakumeon bizi energia?

— Hainbeste gauza... Bakoitzaren baitan badago emakume basati bat, mendeetan ezin izan dena garatu, emakume izatearen, sexualitatearen eta sentimenduen zapalkuntza izan delako, batez ere, gizarte garatuak deritzogunetan. Maputxeek, adibidez, garrantzi handia ematen diote emakumeari, bera delako sortzailea, eta ez bakarrik umeak ekartzen dituelako, baizik eta lurrarekin harremana duelako. Euskal Herrian ere badaude balore horiek, baina ahaztu samarrak daude, agian badaudelako horiek azaleratzerik gura ez dutenak. Horregatik, nire erakusketa emakume guztiei omenaldia da, eta, batez ere, gure baitan dagoen eta oraindik deskubritu ez dugun emakume basatiari.

“Emakume basati hori ez da garatu, emakume izatearen zapalkuntza izan delako”

aste gazte

■ DIRULAGUNTZAK

• Banco de Españaik ekonomiaren historiaren inguruko ikerketak egiteko dirulaguntzak. Epea: martxoak 16.

• Frantzian, Alemanian, Erresuma Batuan, Estatu Batuetan, Kanadan eta Japonian gradu ondoko edo doktorego ondoko ikasketak osatzeko laguntzak, lizentziadunendako, La Caixaren eskutik. Epea: martxoak 30, maiatzak 15 eta ekainak 29.

■ LANA

• Oñatiko Udalak udaltzaina behar du. Epea: martxoak 8.

• Donostiako Informatikako Zentrorako informatikaria behar da. Epea: martxoak 14.

• Lizarrako Udalak lorezaina behar du. Epea: martxoak 19.

• Altsasu, Olazti eta Zorriako Mankomunitaterako gizarte langilea behar da. Epea: martxoak 22.

■ IKASTAROAK

• Zeramika ikastaroa, Loixe Taldearen eskutik. Martitzen eta eguenetan, 19:00etatik 21:00etara, San Juanak arte.

■ ESKI IRTEERAK

• Besaide Mendizale Elkar-teak Formigalera eski irteerak antolatu ditu, urtarrelean hasi eta martxo arteko asteburuetarako. Ikastaroak egiteko dirulaguntzak, Gazteria Sailaren eskutik.

■ TXARTELAK

• Nazioarteko Txartelak (ikasle, irakasle, gazte, aterpetxe) egiten ditugu Gazte Bulegoan.

Argibideak:
GAZTE ZERBITZUA
☎ 943 77 00 65

Paisaiak nagusi Toki-Ederreko erakusketan

Martxoan, Diana Orbe margolari barakaldarraren erakusketa hartuko du San Andres auzoko Toki-Eder kafetegiak. Paisaiak ditu gustuko artista horrek, beti ere estilo impresionistaz jorratuak. Marrazkia, argia eta kolorea maisuki nahasi eta elkartzen ditu Orbek, ikuslearengana kontaezinezko sentimenduak igortzeko. Gainera, ez da lehenengo aldia Diana Orbek Arrasaten erakusten duena, iaz beste erakusketa bat izan zuelako Toki-Ederren.

Esteban de Garibairen inguruko liburua

Eusko Ikaskuntzak Esteban de Garibairen inguruko liburua kaleratuko du laster. Iazko udaberrian Arrasaten egin ziren hitzaldiak jasotzen ditu liburu horrek, eta udalak 525.000 pezetako laguntza zuzendu dio egitasmoari.

Historialari mondragoe-tarraren bizitza eta lana iker-tu duten adituak etorri ziren iaz Arrasatera jardunaldi haie-tan parte hartzera, Garibai hil zeneko 400. urteurrena ospat-zeko, alegia. Izan ere, asko dira Garibairen inguruan iker-tu duten adituak.

LIBURUAK

Badira Garibairen gaineko hainbat liburu ere; berrienen artean, Jose Angel Achonek zuzendutako Garibairen *Memoriasen* edizio berria edo Jose Antonio Aspiazuren *El Acero de Mondragón en la época de Garibay*.

Andaluzia Eguna bete-bete astebukaeran

Asteburua ospakizunez josit-a datorkigu, Al-Andalus kultura elkartearen eskutik. Joan den astean hasi ziren Andaluzia Egunaren ospakizunekin, eta asteburuan emango du egitarauak bere onena.

Egubakoitzean, hilak 2, Rafael Gomez Priego adituak gastronomiaren gaineko hitzaldia egingo du Musakolako egoitzan, 21:00etan. Zapatuan, goizetik gauera bitartean, atsedeen barik arituko dira jai giroan. Andaluziako ereserkiaren ondoren, Sueños de Andalucía dantza taldearen emanaldia izango da; 14:30ean, bazkaria, eta ondoren, Al-Andalusko musika tal-



Al-Andaluseko talde guztiek eskainiko dute saio bana.

deen emanaldiak. 21:30ean, bazkideendako afaria, eta gauerdian, orkestrak girotutako dantzaldia.

Horrenbestez amaituko

dira Andaluziaren Autonomia Estatutuaren onarpena gogorarazteko ospakizunak. Eguaztenean, hilak 28 izan Andaluzia eguna.

Dena prest Korrika egunerako



Aurten ere, gauez iritsiko da Korrika Arrasatera.

Apirilaren 3an sartuko da Korrika Arrasaten: 00:08ean, zehatz-mehatz esatearren. Egun horretarako dena prest du Erdur euskaltegiak. Udalak hainbat neurri onartu ditu: besteak beste, Euskara sailak kilometro bat erosiko du, 90.000 pezetan. Bestalde, 184.000 pezetako dirulaguntza emango dio Erduri, hainbat kultura ekitaldi antolatuzko.

Kultura ekintza horiek,

Korrika Kulturala izenpean, martxoaren 9an hasiko dira, folk musika kontzertu batekin. Gerora begira, Arrasateko dantza taldeen kalejira, musika emanaldi gehiago, kalejirak, konpartsak, antzerki saioak... egongo dira. Apirilaren 2an, arratsaldetik hasita, hainbat ekintza izango dira, gauerdira arte. Orduan, San Prudentziarra joateko aukera izango dugu, Korrikari harrera egitera.

Sexu erasoak hizpide

Arantza Urkaregi feministak *Zer egin sexuak beldurtzen gaituenean?* hitzaldia emango du martxoaren 7an. Hitzaldi honekin hasiko da Udalak martxoaren 8a gogoratzeko antolatutako solasaldi sorta.

«Emakumeok jasaten ditugun erasoak salatu behar ditugu, baina kontuz ibili behar dugu emakumeon beldur sexuala eta babesik eza ez areagotzeko. Plazerra aldarrikatu eta arriskua salatzearen arteko oreka bilatu behar dugu, esate baterako, eraso sexualak definitzerakoan», dio hizlariak. Eraso sexualak zergatik ematen diren, erasotzaileekin zer egin behar den... era honetako galderei erantzuten saiatuko da. Monterronen duzue hitzordua, 19:00etan.

Martxoaren 13an, emakumea eta indigena izateaz berba egingo du amerikar indigena batek; eta 21ean, *Emakumea eta kartzela* berbaldia emango du preso ohi batek.

Aurten, azoka oparoagoa

Urtero bezala, aurten ere emakume baserritarren eta artisauen azoka egingo da, martxoaren 3an, Seber Altube plazan. Goizez eta eguerdiz izango da azokaz gozatzeko aukera. Gainera, aurten, inoiz baino parte hartze handiagoa izango du azokak. Batez ere, artisautza postuak ugaritu dira: jeneralean, hamar postu izaten dira, eta aurten, hamabost artisau egon dira. Gainera, hainbat produktu egiten dituzten postuak izango ditugu. Hasierako urteetan, hamar bat artisautza postu ohi zeuden. Baserritarren aldetik, oraingo urtean zazpi txosna izango dira, iaz baino bat gehiago.

EUSKAL HERRI OSOTIK

Aldi berean, zabaldu egin da parte hartzaileen jatorri eremua: orain arte, salbuespenak salbuespen, bailarakoak ziren



guztiak; baina, urterik urte, Euskal Herriko beste toki batzuetako emakumeak etorri izan dira. Aurten, Gipuzkoatik, Arabatik, Bizkaitik eta Nafarroatik etorritako arti-

sauak izango dira. Baserritarrei dagokienez, horiek bai, gehienak debagoiendarrak izango dira.

Arlo bakoitzean, Arrasateko bina postu aurkituko ditu-

gu: baserritarren aldetik, Ekin Emakumeak elkarte eta EBEL Emakumeak elkarte; artisautzan, Idoia Ibañez eta Felipa Cano eskulangileak, besteak beste.

‘Cómeme el punto’: probokazioa, gozamina

Emakumeaz, desioaz, sexu jarrerez, usteez eta tabuez berba egin eta gogoeta piztu gura zuten Legaleon taldeko aktoreek. Horretarako, gai horien inguruko testuak eta esanak jaso zituzten. Horieta jabetu

ziren, eta oso testuinguru desberdinean plazaratu dituzte: agertokian, kabaret bokazioa duen narrazio eta antzezpenaren gorpuzkera emanez. Horren emaitza: *Cómeme el punto* antzerki-kabareta.

Amaia antzokian eskainiko dute, domekan, 19:30ean.

BI AKTORE ETA BIOLINISTA

Espe Lopez eta Mila Espiga aktoreek, Mirari Irurzun biolinistaren laguntzarekin, antzezten dituzte hizketaldi horiek.

Hilerokoaz, lesbianismoaz, gizon-emakumeen harremanez, sedukzioaz eta abarrez berba egingo digute. Topikoak kanporatzen saiatuko dira, kontu horiek ikuspuntu guztietatik landuz.

Probokatzea dute helburu, baina hori bai, gozatuz. Ahalik eta liberekin jokatu saiatzen dira, eta ironia erabiltzen dute, horixe delako, euren ustez, gaur egungo gizartearengana zuzentzeko modua.

Emakume zinemagileak

Emakumeek zuzendutako filmak emitituko dituzte martxoaren zine-klubean, eta baita emakumeon inguruko istorioak kontatzen dituztenak ere. Datorren egunean, hilak 8, Anjelica Huston aktore eta zuzendariak egindako film bat eskainiko da: *Agnes Browne - egi bihurtutako ametsa*.

1967ko Dublinera garatutako filmak. Senarra bat batean hil, eta Agnes eta zazpi seme-alabak konturatuko dira ekonomia prekarioan bizi direla. Hileta duina emateko, Agnesek mailegua eskatuko du. Aldi berean, merkaturako saltzaile bezala lanean jardungo du. Filmean, zailtasunen gainetik bizipozari eusten saiatzen den emakumearen bitzta ikusiko dugu.



Probokatzea dute helburu, baina hori bai.



Antolatzaileak

Astehenero elkartzen dira antolatzaileak Gaztetxean asteburuak eman duena errepasatzeko.

KATXIPORRA KANPORA

Zapatu arratsaldean zeukaten hitzordua Iturripen, eta hasiera baten, futboleko jokatzeko ordu ona bada ere, hiru jokalarik ez ziren agertu. Katxiporra taldea 11. zegoen, 11 punturekin, eta bigarren aldirako txartela lortzeko aukera zuen, baina talde horrendako amaitu da aurtengo denboraldia. Antolatzaileek taldea kanporatzea erabaki dute, eta horrekin batera, fidantza galduko dute.

JOKOZ KANPO

Zaldibarren, sarritan, lagun

arteko norgehiagokak izaten dira gogorrenak. Partidu bereziak izaten dira, eta "derbi" horiek behar baino gehiago berotzen dira. Zapatu arratsaldean ere lagun arteko partidua ikusteko aukera izan genuen, baina azkenean, jokoz kanpo zeuden gauza asko ikusi genuen. Ezin esan dezakegu epaileak neurria eman zuenik, aukeran gazteegia zen horrelako partidu baten erabakiak zorrotasunez hartzeko. Baina, nahikoa egin arren ere, denetik entzun behar izan zuen. Antolatzaileek erabaki dute EPEH eta KJ Basati tal-

deei abisua ematea, eta beste behin horrelakorik gertatuz gero, erabaki gogorragoak hartuko dituzte. Hortaz, ez dute inor kaleratuko, baina norberak jakin beharko luke Zaldibarrera zertara joaten den.

BADAGO ZER HOBETU

Gauzak ondo eginda ere, beti dago zer hobetu. Behin baino gehiagotan esan izan dugu epaile askok ez dutela behar adinako mailarik, bai denbora ez dutelako errespetatzen, bai partidua epaitzeko gai ez direlako. Horrelakoetan, komenigarria izango litzateke zain-

tzailak protagonismo gehiago izan eta arazoari konponbidea ematen saiatzea. Ildo beretik, antolatzaileak bigarren aldirako epaile bila dabilta, eta honezkero, jendea hasi da animatzen. Sariak izango dira. Hortaz, animatu!



Sukalde altzarien fabrika eta horman sartutako armairuak



- Fabrikako prezioa
- Erakusketa zabala. 2 solairu
- Kalitatea eta diseinua
- Azken berrikuntzak

Kataide Industrialdea, 6. pabilioia
ARRASATE • Tel.: 943 71 25 08



Berezitasunak
Kazuelatxoak
Otarreko hotz eta beroak

Arrasate Pasealekua, 33
ARRASATE Tel.: 943 79 67 76

Emaitzak

A taldea

Lasagabaster 7 - AC Surcos 7
 YK Azkena 6 - Kanpanzar Harrobia 2
 Sas T 4 - AT Celaya 5
 Rayo Aldeano 5 - Fraguel Gol 2
 Txeyenex 2 - Bikain Akademia 5
 Irati STS 1 - Usotz 7
 Totx 3 - Kamasutra 3
 Abokajarro 6 - Full Duplex 4
 EPEH 7 - KJ Basati 5
 Betrayer 3 - Goma2 5
 Katxiporra 0 - Aurrera Bolie 1
 DKB Kobate 3 - AKTA 0
 Iriztu 5 - Alai Gozokiak 2

B taldea

Pepelus.insero.com 5 - New Makai 3
 Komando Alpargat 9 - AL Ion

Sailkapenak

A taldea	PARTIDAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irabaz.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	Guzt.
Aurrera Bolie	12	10	1	1	51	22	21
YK Azkena	12	9	2	1	47	29	20
Txap Dribling	12	9	1	2	56	27	19
Lasagabaster	12	8	2	2	60	34	18
Kom Alpargat	12	8	1	3	57	47	17
Bikain Akad	12	6	4	2	63	41	16
AC Surcos	12	6	4	2	52	48	16
Goma2	12	6	3	3	61	44	15
IKP	12	7	1	4	43	47	15
Serengeti	11	5	3	3	35	32	13
Katxiporra	12	5	1	6	42	57	11
Kanp Harrobia	12	4	1	7	32	48	9
Leya	11	2	4	5	28	34	8
Makanaki FC	12	2	1	9	15	22	5
Betrayer	12	1	2	9	46	61	4
Txeyenex	12	2	0	10	24	55	4
AL Ion	12	1	1	10	39	87	3
The Pippol	12	0	0	12	7	23	0

B taldea	PARTIDAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irabaz.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	Guzt.
Iriztu	12	10	1	1	60	19	21
Etixerat Tab	11	9	1	1	78	29	19
AT Celaya	11	8	1	2	48	37	17
Rayo Aldeano	12	7	2	3	70	41	16
Kamasutra	12	6	3	3	51	37	15
Fragel Gol	11	7	0	4	50	37	14
Pepelus.com	11	7	0	4	42	31	14
Irati STS	11	6	1	4	56	38	13
Usotz Potroak	11	6	1	4	56	38	13
DKB Kobate	12	5	2	5	44	44	12
EPEH	11	5	1	5	36	55	11
KJ Basati	11	4	1	6	53	48	9
AKTA	12	4	1	7	43	45	9
Full Duplex	11	4	1	6	41	42	9
Txotx	12	3	2	7	25	54	8
Alai Gozokiak	11	2	1	8	29	54	5
Abocajarro	11	2	1	8	35	71	4
New Makai	11	2	0	9	20	73	4
Sas T	12	1	1	10	20	74	3

Hurrengo partidak /13. jardunaldia

Otsailak 2, zapatua

Martxoak 3, zapatua

Zaldibar

10:50 Fragel Gol - Irati STS
 12:00 Aurrera Bolie - Txap. Dribling
 13:00 AC Surcos - Kanp. Harrobia
 14:00 Bikain Akad. - Betrayer
 15:00 AKTA - Abocajarro
 16:00 Rayo Aldeano - Alai Gozokiak
 17:00 Usotz Potroak - AT Celaya
 16:00 Txotx - Etixerat Taberna
 17:00 Kom. Alpargat - YK Azkena

Epailea

Aurrera Bolie
 Irati STS
 Txap. Dribling
 AC Surcos
 Bikain Akad.
 Abocajarro
 Alai Gozokiak
 Usotz Potroak
 Txotx

Atsedena: SasT, Leya, Goma2, Lasagabaster

Iturripe A

14:50 EPEH - DKB Kobate
 16:00 Txeyenex - AL Ion

Epailea

AL Ion
 EPEH

Iturripe B

14:50 IKP - Serengeti
 16:00 Kamasutra - New Makai

New Makai
 Serengeti


Martxoak 4, domeka

Zaldibar

11:50 Pepelus.com - Full Duplex
 13:00 KJ Basati - Iriztu

Iriztu
 Pepelus.com

PUB HAIZEA



MARKO-JARTZEAK

ALDEDI


Biteri, 8 • ARRASATE

Tel.: 943 79 13 05 • Faxa: 943 79 13 84

Euskal Liga eta Udaberri saria jokoan

Joan den egubakoitzean, Euskal Ligako finalak jokatu ziren. Lehen partida eskuz binakoa izan zen: Elorrioko Amategi eta Zubiatek 22-18 irabazi zieten Elizondoko Larralde eta Elizalderi, eta elorrioarrak izan ziren txapeldunak; bigarren partida gazte mailako buruz burukoa izan zen. Moran eta Gartziandia izan ziren aurrez aurre, eta Moranek irabazi zuen. Azkenik, jubencil mailako beste norgehiagoka bat ere izan zen. Eskuz binakoa, Lemoa eta Añorga izan ziren aurrez aurre, eta lemoarrak 22-12 gailendu ziren.

Zapatuan, berriaz, Udaberri sariko partidak jokatu ziren. Jimenezek eta Uribarrenek 22-21 irabazi zieten añorgarrei. Emaitzak erakusten duen moduan, emozioz betetako



Aurreko asteburuan, pilotazaleek izan zuten non aukeratu.

partida izan zen.

Bigarren partidaren aldiak, ez zuten emoziorik izan, Lazkano

eta Belategik ezin izan zuten kanpoko bikotearekin, eta añorgarrek 22-4 irabazi zieten

mondragoetarrei.

Uarkapen jokatu ziren pilota partiduetan.

Gazte mailakoak, bikain

Erregional mailako taldea hasiera baten erakutsi behar zuen maila ematen ari da, eta azkenaldian, etxeko taldea pun-

tu ugari lortzen ari da. Oraindik, goiko postuei eusteko astia dago, eta bide beretik jarraituz gero, denboraldi amaieran

talde zuri-morea sailkapenaren goialdean ikus dezakegu. Goiko postuan gazte mailako taldea dago, sekulako denboral-

dia egiten ari dira, eta sailkapeneko lehen tokian daude, Billabonaren aurretik. 23 neurketa jokatu dituzte, bi berdinketa eta 18 partidu irabazi dituzte: 56 puntu, guztira.

Aurreko asteburuan derbia jokatu zuten Atxabalpen, eta gazte mailako jokalariek argi utzi zuten bide beretik jarraitzeko asmoa daukatela. 4-1 irabazi zieten atxabaltarrei, baina partidu hasiera parekatua izan zen.

Lehen zatia 0-0 bukatu bazen ere, bigarren zatian sartu zituzten gol guztiak. Olmedo, Iker Lopez, Arkaitz Garmendia eta Iban Rajado izan ziren goleatzaileak.

Datorren astean, bestalde, zeingehiagoka erabakigarria jokatuko dute Billabonaren aurka.



denboraldi amaieran talde zuri-morea sailkapenaren goialdean ikus dezakegu

ERRUGBIA Berdinketa



Etxeko taldeak 15na berdindu zuen UPV Bilbo taldearen aurka, eta joko aldetik, ezin esan partidu ikusgarria izan zenik. Zelaia ez zuen askorik lagundu, bertan kirola praktikatzea geroago eta zailagoa da eta. Bilbotarrak bigarren dira sailkapenean. Etxeko taldeari jokalaria asko falta zitzaizkion. Lehen zatian, kanpotarrek aurrelariengan oinarritu zuten jokoak, baina bigarren zatian behera egin zuten, eta etxeko taldeak jokalaria bat gutxiagorekin jokatu arren, berdinke-tari eutsi zion.

XAKEA Josu Tornay, bigarren



Arrasate Hiriko hirugarren jardunaldia jokatu zuten egubakoitzean, eta aurreko pos-

tuetan dauden Carlos Nava eta Josu Tornayk ez zuten kalerik egin. Carlos Navak Isidro Ruiz-en aurka neurtu zituen indarrak. Josu Tornayk, bestalde, Agirretxe izan zuen aurrez aurre. Kostata irabazi zuen, baina horri esker nazioarteko sailkapenean tokia izan dezake Josuk. Carlos Navas da hiru puntu lortu dituen bakarra, eta atzetik, Tornay, Fernandez, Agirretxe eta Cristobal Limeres daude, bi punturekin.

SASKIBALOIA Seigarrenean aidanez



Arazo ugari izan zituen Lander Errastik taldea eratzeko orduan, eta junior mailatik Zuhaitz Gonzalezi deitu eta zazpi jokalaria abiatu ziren Bizkai aldera. Partiduan berdinketa izan zen nagusi, eta azken laurdenean erabaki zen norgehiagoka. 79-83 nagusitu zen etxeko taldea. Kostata, baina merezitako garaipena.

Emaitzak

FUTBOLA

- **Lehenengo gazteak**
Mondra 4 - UDA 1

ERRUGBIA

Arrasate 15 - UPV Bilbo 15

SASKIBALOIA

- **Seniorrak**
Urdaneta 79 - Kenci
Arrasate 83

Jokatzekoak

FUTBOLA

- **Lehen erregionala**
Mondra - Pedrusko
zapatuan 16:15ean

- **Bigarren mailako gazteak**

Mondra - Mariño
zapatuan 11etan

- **Lehenengo gazteak**
Mondra Billabona
domekan 16:15ean

ESKUBALOIA

- **Kadeteak**
Arrasate - Usurbil
domekan 10:15ean

- **Jubenilak**
Arrasate - Urola
domekan 11:30ean

ERRUGBIA

- **Kadeteak**
Arrasate - Eibar
zapatuan 11:45ean

SASKIBALOIA

- **Nagusiak**
Arrasate - Viajes Marfil
zapatuan 18:00etan
Iturripen
- **Kadete neskak**
Arrasate - STL Lizardi
zapatuan 10:15ean
Musakolan

Dorletako Ama txirrindulari taldearen aurkezpena

Zapatuan, Dorletako Ama Txirrindulari Eskolak denboraldiaren aurkezpen egin zuen. Goizean Dorletako Amaren Santutegian batu ziren, Ama Birjinari lore eskaintza egiteko. Txirrindulari eskolan ibiliko diren 16 ziklistak aurkeztu zituzten.

Tartean, zortzi arrasatear daude. Fagorreko gazte mailan: Raul Blazkez, Aitor Elorza, Ametz Elustondo; kadeteetan, JMAk lau arrasatear ditu: Mikel Arregi, Jon Racionero, Unai Bilunbrales eta Jon Merino; eta azkenik, infantiletan, Arrasate Kirolakeko Mikel Dominguez du.



Bailarako

berriak,

bailarako

jendea,


bailarako

telebistan.

Goitb
Goiena Telebista

Txirrindularitza berbagai

Igo Autobusera Astelehenean 10:15ean



Igo autobusera saioak txirrindularitza izango du hizpide astelehenean.

Hamabostean behin, kirolaren gaineko eztabaida izaten da entzungai, eta astelehenean, txirrindularitza landuko dute Aitziber Aranburuzabalak gidatzen duen saioan. Horretarako, Jon Odriozola txirrindulari oñatiarra etorriko da Arrasate Irratira. Gaur egun, *ibanesto.com* taldean dabil oñatiarra. Hasi berria den denboraldirako zein asmo dituen azaltzeaz gain, txirrindulariek errepideetan duten segurtasun ezaz ere galdetuko diote Jon Odriozolari. Astelehenean, 10:15etik aurrera.

arrasate
irratia



ASTELEHENA - OSTIRALA

- 09:00 Egunon Arrasate eta prentsaren errepasoa.
- 09:55 Eguneko hitzorduak.
- 10:00 Igo autobusera I.
- 11:00 Albistegia.
- 11:15 Igo autobusera II.
- 12:30 Agenda, eskelak...
- 12:45 Albistegi nagusia.
- 14:00-18:00 Errepika.

ASTELEHENEAN

- 20:00 Jokoz Kanpo.
- 21:00 Draxtor.
- 22:00 In Session.

MARTITZENEAN

- 20:00 Hi bizi hadi.
- 21:00 Jakidiplost.

EGUAZTENEAN

- 20:00 Binilo ordua.
- 21:00 KK2A.

EGUENEAN

- 20:00 Ostegun-Ero.
- 21:00 Arakutzen.

EGUBAKOITZEAN

- 20:00 Planing Prest.
- 21:00 Kale Doinuak.

ZAPATUAN

- 10:00 Bihurrikerietan.
- 11:00 Musika klasikoa.
- 12:00 Bi zoro ta zu.

kontzertuak

BERGARAKO JAM ETA GO-JAMEKO
KONTZERTUETARAKO SARRERAK.

Martxoak 9: **Mudvayne**

Martxoak 10: **Gluecifer + Peepshow
+ Mermaid**

Egun bakoitzeko **2 SARRERA**
zozketatuko ditugu. Azken eguna: datorren
egubakoitza. Zozketa Arrasate Irratian egingo da.

Izen-deiturak:

Tel.:

Zein Kontzertu?

Bidalai gurera: Arrasate Press, Otarora 31
edo deitu Arrasate Irratira: **943 71 17 31.**

Elhuyar Elkartearen tartea

Eguenetan, goizeko 11,30etan, Elhuyar zientzia elkartearekin bat egiten du Arrasate Irratiak. Elhuyarrek zientziaren dibulgazioa egiten du hainbat komunikabidetan, eta Arrasate Irratian ere ematen dituzte zientziaren inguruko azalpenak, beti ere, modu ulergarrian eta erakargarrian.

“Egus” kantariari elkarrizketa

Alberto Eguskiza “Egus” arrasatearraren musika entzungai izango dugu Igo Autobusera saioan, martxoaren 1ean. Bartzelonan bizi den lagun horren musika entzuteaz gain, bera ere elkarrizketatuko dute Diego Martiarturekin.

**HIES
BERRI**

Tel.: 943 79 26 99


“PAL”

burdindegia,
brikolage
eta tresneria

Uribarri etorbidea, 3
Tel.: 943 79 31 99 ARRASATE

IRATI TABERNA

Ferrerias kalea • Tel.: 943 79 56 11
ARRASATE



Felix Arano, Maisu Arano izenez ezagunagoa, gizon handia izan da Mondragoen; pedagogo zen, eta Biteri Eskoletako maisua. Besteak beste, 1920an metodo pedagogiko berri bat aurkeztu zuen Euskal Ikasketen II. Kongresuan.

Biteri Eskoletan erabiltzen zen buruzko-kalkulurako ariketan oinarritutako metodoa zen.

1924. urteko azaroaren 4an, berriz, argazkiko ikasle arrasatear taldea Eibarko Armagintza Eskolara joan zen, Felix Arano maisuarengandik Biteri Eskolan jasotakoak irakastera.

Gure protagonistak honakoak dira, ezkerretik eskumara: lehenengo mutikoa, Guillermo Ruiz de Alegria, ondoko gizona, Felix Arano maisua, haren ondoko mutikotxoa, David Arzamendi, eta bere atzekoa, Santiago Bastida, argazkikoak Mondragoetik Eibarrera eroan zituenak.

Eta ikusten den azkenengo mutikoa Javier Berecibar "Montxon" da; azken hori abade zela hil zen Mundakan.

Gainerako gizonak Armagintza Eskolako langileak dira.

*Argazkia eta berriematea:
David Arzamendi.*



TALLERES OLA

Olabarrena auzoa, z/g
Tel.: 943 76 33 44 / 45 / 46 / 47 • BERGARA

OPEL

TAKOLO AUTOAK, S.L.

Zerbitzu ofiziala ARRASATEN
Araba etorbidea, 3 (Eskatu pabilioia) • Tel.: 943 79 05 86



ETXE MOBEL
MUEBLES ALTZARIAN

Araba Etorbidea 5 •
Tel. / Faxa: 943 79 41 82
ARRASATE




RKUZ
ALTZARIAN

Araba etorbidea 20 •
Tel. / Faxa: 943 79 23 51
ARETXABALETA



RKUZ
ELEKTRAGAILUAK

Asunción, 1 •
Tel. / Faxa: 943 79 10 97
ARETXABALETA

expert 

RKUZ
SUHARDE INTEGRALA

Mitarte 3 •
Tel. / Faxa: 943 77 04 55
ARETXABALETA

FAGOR 

50 urte baino gehiago gure bezeroen zerbitzura.

Eskerrik asko emandako konfiantzazatik

Liderra segurtasunean

Egiazta ezazu

“Erabiltzaile eta kontsumitzaileen Erakundeak (OCU), “crash test” delakoaren bitartez egindako ikerketaren arabera, Ford Focus-ek puntuaziorik altuena lortu du segurtasunean, beste 5 modelorekin batera”

AUTOPISTA aldizkariko 2.064. zenbakian argitaratua

Ford Focus ****
Mercedes Clase A ****
Opel Astra ****
Renault Mégane ****
Audi A3 ****
VW Golf ****
Citroën Xsara ***
Peugeot 306 ***
Toyota Corolla ***
Daewoo Lanos ***
Honda Civic ***
Fiat Brava **
Ford Scort **
Hyundai Accent **
Mitsubishi Lancer **
Nissan almera **
Suzuki baleno **



MUGARRI



DEBA GARAIKO
BANATZAILE OFIZIALA

Araba etorbidea, z/g • ARRASATE

Tel.: 943 79 07 44 / 943 79 07 54